EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?



albistea//XVII. SAGAR UZTA

# Uzta berriaren festa, bihartik

*Asteburuan izango da Sagar Uztaren festa haundia Astigarragan, baina bihar bertan hasiko da: pintxopotea izango da herriko tabernetan.*

ASTIGARRAGA

2017/09/20 00:00 Asteazkena

Sagar Uzta berriaren festa ospatuko du Astigarragak, asteburu honetan. Hainbat ekintza izango dira larunbatean, eta igandean daukate egun nagusia, Foru Plazan. Bertan dastatuko dute, 2017ko uztaren aurreneko muztioa ere.

Baina aurreneko zita, bihar bertan jarri dute: pintxopotea izango da, herriko tabernetan.

Iluntzeko 19:00etan hasita, eta 21:00ak arte, aukera izango dute herritarrek, sagarraren eratorriekin egindako pintxo goxoak dastatzeko.

## Bi ekintzatan, izenematea

Larunbatean izango dira beste lau ekintza, eta horietako bitan parte hartzeko, izena eman behar da aurrez: Sagar motak ezagutuz mendi-buelta egiteko, eta arratsaldeko Garbibai zafari-meriendarako.

Apuntatzeko, bi bide jarri dituzte aukeran: 943 55 05 75 telefonora deitu, edota idatzi info@sagardoarenlurraldea.eus helbide elektronikora.

XVII. SAGAR UZTA

"Ezkondu?"

LABORAL kutxa



PDF

ASTIGARRAGA

Irailak 20



PDF

HERNANI

Irailak 20

ESKELAK

HERNANI

**BIHAR, osteguna**

19:00-21:00, Pintxopotea  herriko tabernetan. Sagarraren eratorriekin egindako pintxoak emango dituzte.

**IRAILAK 23, larunbata**

09:30, 'Sagar motak ezagutuz', Santiomendiko Sagardo Bidean zehar mendi-buelta familian.
10:00, IV. Sagardobide Erronka, Santiomendin zehar errelebo proba.
11:00, Familientzako apainketa tailerra sagarrarekin.
16:00-19:00, 'Garbibai zafari-merienda': zutikako arrauna Urumea ibaian, Donostiatik Astigarragara; eta Garbibai erakusketa eta afari-merienda girotua, Gartziategi baserri inguruan.

**IRAILAK 24, larunbata**

*Sagarraren Jaia, Foru Plazan*
09:30, Diana, Musika Eskolako eta Txirrisklako txistulariekin.
10:30-12:00, Sagar postre lehiaketa. Postreak frontoian entregatu behar dira.
10:30-12:00, X. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izena ematea, plazan.
11:00-14:00, Sagarraren azoka: sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta; sagardo eta muztio dastaketa; saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak; herriko baserritarren produktuen salmenta; eta trikitilariak herrian zehar.
11:00, Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea, bertaratutako familien laguntzarekin.
12:30, Sagar dantza eta
kirikoketa.
13:00, Txalaparta eta 2017ko uztako aurreneko muztioaren topa herrikoia.

Atsegin dut 0 Txiokatu Whatsapp Emaila
Inprimitu

## IRUZKINAK

*Emiliano Garcia Perez*



## Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

## Puri-Purian

*SOS Errefuxiatuaken furgoneta ...* (1)

## Urumeako gida

Komertzio bat bilatu Bilatu




**Txirrita tailerra**
Ekarri zure autoa gure tailerrera

## Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

**Telefonoa: 616886660**

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragar
bateragarria:

- Firefox
- Chrome
- Internet Explorer 11+
- Safari

*Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)*

**Telefonoa: 943332894**



**Oñatiko arautze aurkez**

GOIEN/



**Katalur**

ORAII





**65 mili**
**Aldund**
**estrate**

GUREA



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eg

Tweets por @KronikaNet



www.
eus
Zu
Zure domein

| Gaur | Bihar | Etzi |
|---|---|---|
| 22º | 22º | 20º |
| 10º | 14º | 13º |

Aemet eskainitako datuak

## Azken argazkiak


Euskal Jaiak 2017


Latsunbeberri-Marielut...


Portuko Jaiak 2017


Ergobiako Jaiak 2017


Goizuetako Fiestak - A...


Goizuetako Fiestak - A...

## Azken bideoak



Harrapazka



Tolosa ahizpak txapeldun, Zestoako ...



«Urduri egongo naiz; hainbeste ...



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian


ARGITARATZAILEA

dobEra EUSKARA ELKARTEA

ZEIN GARA

URUMEAKO kronika



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Hernaniko Udala · Astigarragako Udala · Ereñotzuko Auzo Udala · Arantzako udala · Goizuetako udala

DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK



Legezko oharra